

# Ardanza: «Estatuen konpromezua behar da droga trafikoari amaiera emateko»

‘Drogak, garapena eta zuzenbidezko estatuak’ aztergai Deustuan

**D**roga trafikoak eragiten dituen arazoak konpontzeko estatuen, nazioarteko erakunde eta banka bezalako gizarte instituzio handien eskuhartzea eta konpromezua eskatu zuen atzo Jose Antonio Ardanza EAEko lehendakariak.

GORANE AGIRRE / BILBO

Ardanzak Deustuko Unibertsitatean atzo hasi ziren eta bihar arte iraungo duten ‘Drogak, garapena eta zuzenbidezko estatuak’ izenburuko jardunaldien inaugurazio ekitaldian hartu zuen parte. Bere hitzetan, «droga trafikoak demokrazia konstituzionalak eraitsi, eta estatu askotako elkarbizitza bermatzen duten instituzio judizialei iseka egin eta legea eta gizarte araudiak karikatuta barregarri bihurtzake».

Ildo horretan, EAEko lehendakariak «izugarritzat» jo zuen «mendebaldeko arduradun politikoek droga trafikoan izan dituzaketen ustezko erantzukizunak, droga trafikoko klanen arteko erahilketak, polizia arduradunen erantzukizunak eta bereziki gure artean ‘Necora kasuak’ gizartean izan dituen ondorioak».

Zuzenbidezko estatuak, Ardanzaren hitzetan, aurre egin behar diete mafiak, narkoterroristek eta kapitalen zuriketa ahabidetzen duten trama instituzionalek eragindako arazoei. Ildo horretan, dei egin ziren estatu, nazioarteko erakunde eta banka bezalako gizarte instituzio handiei droga trafikoak eragiten dituen arazoak konpontzeko plangintza bat lan dezaten.

Adibide modura, eta ‘Foreing Affairs’ bezalako artikuluen arabera, politikari, epaile, polizia, kazetari eta soldatapeko hiltzaileak erosteko droga trafikoaren munduan ehun mila milioi dolar (14 bilioi pezeta inguru) mugitzen direla salatu zuen.

Droga ekoizleak diren herrialdeez —gehienak Hegoaldekoak— ere mintzo zen atzo Ardanza. Bere hitzetan, «drogarekiko duten menpekotasun ekonomikoaren arazoak, garapena eta eboluzio demokratikoa ulertu behar dira arazoaren dimentsioa eta konponbidea ez murrizteko».

Atzoko jardunaldian Antonio Aranibar Boliviako Kanpo Harremanetarako ministroak ere hartu zuen parte. Koka landatzea «nekazaritza munduak bizi duen pobrezia-ekin» lotu zuen Aranibarrek baita 80ko hamarkadan izan zen meategien itxierarekin ere.



‘Drogak, garapena eta zuzenbidezko estatuak’ jardunaldiak egiten ari dira Bilbon.

XOUSE SIMAL

Aranibarrek garapen alternatiboa defenditu zuen kokaren ekonomia ordezkatzeko. Baina beti ere, «kontuan izanik nekazariak kokaren landaketaren desagertze hutsaren kontra daudela, beren diru sarreretan ordainik ez badute».

Hala ere, Boliviako Kanpo Harremanetarako ministroak az-

✓ **Aranibar: «Kokaren landaketa nekazaritza munduak bizi duen pobrezia-ekin dago lotuta».**

pimarratu zuenez, 1989. urtetik koka landatzeko lursailak % 50 murriztu dira herrialde honetan. Garapen alternatiboak bere garaian aurrikusitako emaitzak lortu ez dituela aitortu bazuen ere, «koka landatzen dutenek pairatzen duten pobrezia gainditzeko bidea» dela nabarmendu zuen.


## Herrada: «Koka hostoekin gosea asetzen dugu»

G. AGIRRE / BILBO

David Herradak, Boliviako Chapareko koka ekoizleak diren Nekazarien Federakundeetako Koordinaziorako Batzordeko partaideak, koka hostoak herrialde honetako kulturaren eta ekonomian duen garrantzia aztertu zuen. Ildo beretik, Estatu Batuek auzi honetan dituzten interes ekonomiko eta politikoez ere mintzatu zen.

«Koka hostoa», azaldu zuen Herradak, «Andeetako gure herrialdeetako jatorrizko ondasun naturala da, 5.000 urte baino gehiagoko kontsumoa eta ekoizpena duena. Nekazarien ohitura onen parte bat da». Ildo honetan, koka hostoek Aymara, Quechua eta Andeetako kultura askorentzat duten medikuntza, kultura, gizarte eta gogoaren baloreak nabarmendu zituen.

Hori dela eta, Herradak gogor salatu zituen, koka hostoa legez kanpoko drogatzen jo eta produktu hau zigortzen duten nazioarteko itunak. «Milioika lagunentzako garrantzia handia duen arren», gehitu zuen David Herradak, «1961. urteko Nazio Batuetako Erakundearen Sorgorkariei buruzko Konbentzio



David Herrada. XOUSE SIMAL

Bakarreko bat zenbakiko zerrandian sorgorkari bezala agertzen da. Era berean, Osasunerako Mundu Erakundeak 1956. urtean ‘drogamenpekotasuntzat’ jo zuen koka hostoen kontsumo tradizionala. Orain, 40 urte geroago frogatu da gure koka zigortzen duen erabakia ez dela bidezkoa».

Koka hostoa, nazioartean lehengai lehiakorra den heinean, krisi ekonomikoari eta pobrezia-ari aurre egiteko baliagarria izan dela nabarmendu zuen He-

rradak. «Gure herrialdeok pairatzen duten krisi ekonomikoak eramangarri egiten du kokak. Izan ere, kokari esker gure nekazariak beste landare batzuen prezioaren merketzeak ekarritako galera estaltzen dute, egonkortasuna emanez. Meategi, lantegi eta eraikuntzako langile berrikatuek koka landatzen dute bizirik irauteko bide bakarra delako».

Droga trafikoaren kontrako borrokari dagokionez, Herradaren ustez, «drogaren ekonomia beste landaketa alternatibo emankorren ordezkapenean oinarritu behar da. Orain arte Garapen Alternatiborako Egitarauak lehentasuna eman dio debekuari garapen eta pobrezia-aren kontrako borrokaren gainetik. Horregatik, programa hauek porrot egin dute».

Estatu Batuen interes ekonomiko eta politikoak ere salatu zituen Herredas-ek. Bere hitzetan, «Estatu Batuetako Gobernuak bere interes ekonomikoetarako erabiltzen du drogen kontrako guda. Baita, Latinamerikan beren militarrek hedatzeko eta gure instituzio politiko eta judizialean eskuhartzea justifikatzeko ere».

## LABURREAN

### RFPB irratiko berriketariak greban gaur ere

Radio France Pays Basque irratiko langileek greban jarraituko dute gaur ere. Nahiz eta bart negoziazioak hasi behar zituzten zuzendaritzak eta sindikatuek, gauerdinako protestaldia jarraituko zela Baionako irratian zabaldu zuten bertako langileek. Radio France irrati sareko langile gehienek greba hasi zuten joan den ostegunean, zuzendaritzarekin negoziaketak eskatuz soldadak eta karrera profesionalaren bilakaera aztertzeko ●

### ERREPIDEEN garapenerako Foru Araua salatu du HBk

Gipuzkoako errepide eta bideen garapenerako Gipuzkoako Batzar Nagusietan Diputazioak aurkeztu duen Foru Arau proposamenaren inguruan kezkatu azaldu da Herri Batasuna. Kezka hori agertu idatzi bat bidali die HBk Gipuzkoako alkateei. Idatzi horretan zehazten denez HBk zuzenketa osoa aurkeztu dio Foru Arau proiektuari. Proposamen horrekin «udal autonomia baztertua eta baldintzatua geratzen da» HBren ustez ●

### SONDIKAN bidaiari gehiago izan dira aurten

Bilboko Sondika aireportuan bidaiari gehiago izan dira 1994ko lehen bederatzi hilabeteotan. Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailak eskaintako datuen arabera guztira 1.052.570 bidaiari pasatu dira Sondikatik bederatzi hilabete hauetan. hau da, iaz baino % 7,2 gehiago ●

### MINBIZIAREN inguruko azterketak Hernanin

Minbiziaren inguruko ikerketa epidemiologikoa egiten ari dira egunotan Hernanin. Jateko ohiturek minbiziarekin duten lotura aztertu nahi da ikerketa horren bidez. Ikerketaren helburua Hernanin bizi diren 2.000 lagunentzako jateko ohituren inkesta bidez ezagutu eta hauei odola ateratzea da ●